

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

Ikasturtea: 2014/2015

Tituluaren gaitasun zehatzei buruzko ikasketen gidaliburua

Ikasketa Planean adierazitakoa: Lan merkatuari buruzko datu eta adierazle sozioekonomikoak interpretatzea, eta teknika egokiak erabiltzea lan arloan ikerketa proiektuak garatzeko (17. zk.).



1. maila: 17. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Biztanleriaren jarduerari buruzko sailkapena aztertzea eta egoki erabiltzea. Biztanleriaren datuetan oinarrituta, langabezia eta jarduera tasak era gidatuan kalkulatzeko. Lan merkatuaren desorekak interpretatzea eta teoria arruntenak erabilita aztertzea.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

Adierazleak	Ikaskuntza emaitzak
<ol style="list-style-type: none">1. Datu estatistikoak aztertzen eta ulertzen ditu beren testuinguruan interpretatzeko.2. Datu estatistikoak aplikatzen eta erabiltzen ditu indize orokorrak ateratzeko.3. Datu estatistikoak interpretatzen ditu, elkar erlazionatuz.4. Lan merkatuko datu estatistikoaren interpretazioan erabiltzen diren teoriak aplikatzen ditu.	<ol style="list-style-type: none">1. Biztanleria estatistikak aztertzen ditu, kategoriak interpretatuz eta lan merkatuaren azterketan aplikatuz.2. Biztanleria aktiboaren inkestaren estatistikak erabiltzen ditu langabezia eta jarduera tasak kalkulatzeko.3. Langabezia eta jarduera tasak interpretatzen ditu, eta haien arteko loturez ohartzen da.4. Lan merkatuaren kontzeptuak erabiltzen ditu langabezia interpretatzeko, teoria arrunten arabera.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

Ekonomia Politikoa irakasgaiak gaitasun hau garatu eta ebaluatzen du.

4. ZEREGINAK

- Lanak egitea, gaiari egokitutako hainbat problema ebaztea, eta lan idatziak aurkeztea.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Ekonomia Politikoa irakasgaiak kontuan hartzen du gaitasun hau bere ebaluazio protokoloan, eta ikasleak ebaluatzeko orduan erabiltzen du.

Ekonomia Politikoa:

Gaitasun honen adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturte hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun honen balorazioa 2. puntuko adierazleen bidez egiten da. Adierazle bakoitzari % 25eko pisua ematen zaio gaitasunaren ebaluazioan. Gaitasunak irakasgaiaren notan duen pisua % 20koa da.

Ikasleek irakasgaia gainditzeak adierazten du gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.
3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



2. maila: 17. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

6. MENDERATZE MAILA

Zehaztasunez eta era erdi-autonomoan interpretatzea sistema sozioekonomikoaren egiturazko adierazleen esparruan erabili ohi diren jarduerari buruzko biztanleriaren adierazle estatistikoak, eraldaketa sozioekonomiko nagusiak eta etorkizuneko erronkak identifikatzeko, esku-hartze publikoen antolakuntzaren eta haien helburu eta mekanismoen esparruan.

7. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
1. Era erdi-autonomoan aztertzen ditu biztanleria aktiboaren inkestaren estatistikak.	1. Era erdi-autonomoan aztertzen ditu jarduera, enplegu, langabezia eta lan baldintzen ohiko adierazleen datuak biltzeko erabiltzen den biztanleria aktiboaren inkestaren estatistikak.
2. Jarduera, enplegu eta langabezia tasak interpretatzen ditu, eta haien loturak beste adierazle batzuekin.	2. Jarduera, enplegu eta langabezia tasak interpretatzen ditu, eta beste adierazle batzuekin duten loturaz ohartzen da: produktibitatea, hazkunde ekonomikoa edo giza garapena (garapen iraunkorra).
3. Jarduera, enplegu eta langabezia datuak ohiko egiturazko adierazleen esparruan kokatzen ditu, etorkizuneko erronkak azaltzeko.	3. Jarduera, enplegu eta langabezia datuak ohiko egiturazko adierazleen esparruan kokatzen ditu, lurralde esparruen egoera eta bilakaera konparatzeko.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

4. Esku-hartze publikoen antolakuntza aztertzen du, baita politika makroekonomikoak ere.	4. Esku-hartze publikoen logika aztertzen du, eta politika makroekonomikoek lan merkatuan duten eraginaz ohartzen da.
5. Estatistika deskribatzailea datu iturriari aplikatzen die.	1. Estatistika deskribatzailea datu iturriari zuzen aplikatzen die; adibidez, laneko bizi kalitateari buruzko inkestak, ezbehar tasa, etab.
6. Ikerketa soziolaboralak irakurtzen ditu.	2. Ikerketa soziolaboralak sakontasunez irakurtzen ditu.
7. Teknika kualitatiboak erabiltzen ditu ikerketetan.	3. Teknika kualitatiboak erabiltzen ditu ikerketa soziolaboralak garatzeko.

8. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

Gaitasuna garatzen eta ebaluatzen laguntzen duten irakasgaiak dira: Ekonomia eta Ogasun Sistema, eta Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak.

9. Gaitasuna garatzeko lagungarriak diren irakasgaien ZEREGINAK:

Ekonomia eta Ogasun Sistema

Kasu gero eta zailagoak ebaztea: hasieran, kontzeptuz kontzeptu; amaieran, hainbat kontzepturi buruzko datuak konbinatuz.

Zereginak ikasgelan egiten dira lankidetzan, taldeka, eta autoebalatu egiten dira.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

Lauhilekoaren amaieran, ikasleek, bakarka, lehendik eginiko prozesua jasoko duen kasu orokor bat ebatzi behar dute.

Teknika kualitatiboak

- a) Estatistika deskribatzaileko ariketak egitea, lan merkatuari, laneko ezbeharrei eta kalitatearen kontrolari aplikatuak.
- b) Graduako gaitasunei lotutako ikerketa soziologikoak aztertzea: giza baliabideak, enpleguaren kudeaketa, lan osasuna...
- c) Ikerketa proiektu bat lantzea, graduan garatutako dimentsio teorikoei, praktikoei eta aplikatuei lotua.
- d) Aurreko puntuan aipatutako ikerketa proiektua jendaurrean defendatzea.

10. EBALUAZIO SISTEMA

Ekonomia eta Ogasun Sistema:

Adierazle guztiak erabiltzen dira (lehen lauak) irakasgaia ebaluatzeko. Ebaluazioak bi osagai ditu: prestakuntza eta egiaztapena. Prestakuntza ebaluazioa ikasgelan egiten da, kasu praktikoen lankidetzako ebazpena aintzat hartuta; egiaztatze ebaluazioa, aldiz, kasu global baten banakako ebazpenaren bidez egiten da.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Lehenengoa autoebaluazioan oinarritzen da; hartara, ikasleak hiru adierazleei dagozkien ikaskuntzaren emaitzetara bideratzen dira. Bigarrena bakarkako proba baten bidez egiten da, non ikasleek ikaskuntzaren hiru emaitzak gainditu behar dituzten.

Gure ustez, adierazleak ez dira banan-banan ebaluatu behar –ehuneko bat emanez–, metagarriak direlako. Gaitasunak, gaur egun, % 5eko pisua du irakasgaiaren pisu globalean.

Teknika kualitatiboak

5., 6. eta 7. adierazleak garatu eta ebaluatzen dira.

Gaitasuna ebaluatzean, pisu hau ematen zaio adierazle bakoitzari:

- 5. adierazlea: % 10
- 6. adierazlea: % 30
- 7. adierazlea: % 60

3. Gaitasunak irakasgaiaren guztizkoan duen pisua % 90ekoa da.

Irakasgai bakoitzaren ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran argitaratzen da ikasleentzat.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.
3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

3. maila: 17. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

1. Menderatze maila

Zuzen eta era erdi-autonomoan interpretatzea lan merkatuari buruzko adierazle guztiak, lan estatistiken datuetan oinarrituta. Azken hamarkadetan lan merkatuetan izan diren eraldaketa nagusiak guztiz identifikatzea, baita sortu duten problematika ere. Oinarri enpirikoa duten ikerketa proiektuak definitzea, era gidatuan, sektore publikoko esku-hartzeak proposatzeko.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

2. Ikaskuntza adierazleak eta emaitzak.

Adierazleak	Ikaskuntza emaitzak
<ol style="list-style-type: none">1. Lan estatistiketako kontzeptuak zuzen identifikatu eta informazioa aurkezteko elementu esanguratsuak hautatzen ditu (taula, grafiko mota...).2. Datuak eta haien arteko erlazioa erabiltzen ditu bere ideiak adierazteko.3. Judizio kritikoen azpian dauden ideiak, printzipioak, ereduak eta balioak identifikatzen ditu.4. Iritziak adierazten ditu erabilera, bideragarritasun, balio... kanpo irizpideen arabera.	<ol style="list-style-type: none">1. Biztanleria aktiboaren inkestaren estatistikak biltzen eta aztertzen ditu era autonomoan, eta beste lan estatistika batzuk era erdi-autonomoan, lan merkatuari buruzko adierazleen esparruan sakontzeko eta garatzeko (kontzeptu nagusien arteko erlazioak argi ordenatzen eta deskribatzen ditu, eta bere grafikoak eta taulak diseinatzen ditu, ulermena hobetzen duten elementu bisualak gehituz).2. Lan estatistiken buletineko datuak eta adierazleak interpretatzen ditu, lan merkatuen arazo nagusien esparruan (ondorio esanguratsuak atera eta hainbat aukera planteatzen ditu datuetatik eta haien erlazioetatik abiatuta).3. Lan merkatuen arauetan gertatzen diren aldaketak eta haien ondorioak aztertzen ditu, lan harremanen azterketari loturiko hainbat ikuspegitik (iritziak argudiatzen ditu, eredu teorikoetatik, baita haien oinarrian dauden balioak ere).4. Lan arloan sektore publikoan esku hartzeko proposamenak definitzen ditu, aintzat harturik lan eskaeran eta eskaintzan, baita soldatetan ere, izango dituen ondorioak (argudiatzeen eta proposamenen egokitasun eta garrantzi irizpideak erabiliz aztertzen du).



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. Gaitasuna garatzen duen irakasgaia

Lan Ekonomia

4. Zereginak

Eremu geografiko jakin bateko lan merkatuaren azterketa proiektua garatzea.

5. Ebaluazio sistema

Lan Ekonomia irakasgaiak gaitasun hau ebaluatzen du 2. puntuko adierazleen bidez. Adierazle bakoitzari % 25eko pisua ematen zaio gaitasunaren ebaluazioan. Gaitasunak irakasgaiaren notan duen pisua % 60koa da.

Irakasgai bakoitzaren ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran argitaratzen da ikasleentzat.

Mailako koordinazio taldea da graduako gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

4. maila: 17. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

11.MENDERATZE MAILA

Zeregina: Kopiatu “Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua Tituluaren gaitasun zehatzen diseinua” dokumentuetatik.

12. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK

Aipatutako “Tituluaren gaitasun zehatzen diseinua” dokumentuetan, gaitasuna garatzen duen irakasgai bakoitzeko ikaskuntza emaitzak agertzen dira.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasuna garatzeko lagungarriak diren irakasgaien zereginak:

- 1. Irakaskuntza emaitzak homogeneousatzea.** Helburua da maila bakoitzeko ikaskuntza emaitzak islatzea, irakasgaiaren arabeko taxonomia gaindituta. Zenbait kasutan, nahikoa izango da irakasgai bakoitzeko ikaskuntza emaitzak gehitzea. Beste batzuetan, hobe izango da emaitzak berriro biltzea. Esate baterako, irakasgai batek "A" eta beste batek "B" aztertzen badu, ikaskuntza emaitza hau izan daiteke: "A eta B" aztertzen ditu.
- 2. Ikaskuntza emaitzetarako adierazleak zehaztea.**
- 3. Ikaskuntza adierazleak eta emaitzak taula batean islatzea.**

13.GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK.

Zeregina: Kopiatu "Tituluaren gaitasun zehatzen diseinua" dokumentuetatik.

14.ZEREGINAK

Gaitasuna garatzeko lagungarriak diren irakasgaien zereginak:

1. Gaitasuna ebaluatzeko zereginak zehaztea.
2. Gaitasuna modu homogeneo eta sintetikoan garatzeko lagungarriak diren irakasgai guztien zereginak islatzea.

15.EBALUAZIO SISTEMA

Gaitasuna garatzen duen irakasgai bakoitzaren zeregina: haren ebaluazio sistema deskribatzea, honako hauek adierazita:

1. Irakasgaiaren izena.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea

2. Ebaluatzen dituen adierazleak. Irakasgai bakoitzak, ebaluatzeko, oinarritzat har ditzake gidaliburu honen 2. puntuari adierazitako adierazle guztiak edo horietako batzuk, eta beste baten bat ere gehi dezake. Mailan gaitasuna garatzen duten irakasgai guztiek 2. puntuari adierazitako adierazle guztiak erabiltzen dituztela bermatu behar da.
3. Gaitasuna ebaluatzean, adierazle bakoitzari emandako garrantzia.
4. Irakasgaiaren notan, gaitasunari emandako pisu globala.
5. Komenigarritzat jotzen bada, zereginei eta ebaluazioari lotutako gainerako alderdiei buruzko informazio osagarria eman daiteke.

Gidaliburua amaitzeko, graduko gaitasun zehatz guztien gidaliburuetarako komunak diren paragrafo hauek ageri dira:

Irakasgai bakoitzaren ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran argitaratzen da ikasleentzat.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.